

GAURKO EGOERA

1. Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan. Legearen arabera, euskara epaitegi eta auzitegietan erabili ahal da herritarrei oztopo edo eragozpenik sortarazi gabe.
2. Hala ere, fiskal, idazkari eta epaile/magistratu gutxi dira gai gaur egun beren jarduera profesionala euskaraz bideratzeko.
3. Hori dela eta, itzulpen zerbitzua sistematikoki erabiltzen da.
4. Idazki eta dokumentu guztiak itzuli egiten direnez, beti ematen dira atzerapenak, normalean hilabeteetakoak.
5. Euskara erabiltzen den gehienetan, jarduketa judizialak eten eta geroratu egiten dira. Egoera horrek herritarra gaztelaniaz aritzera bultzatzen du.
6. Alderdiek, lekukoek eta adituek ahoz egiten dituzten adierazpenetan askotan bat-bateko etenaldiak egin behar dira, itzuli ahal izateko.
7. Abokatuak, ahozko alegazio eta txostenak euskaraz eginez gero, gaztelania erabiliz agertzen ez diren traba askori aurre egin behar diete:
 - etenaldi bortxatuak, izan ere, abokatuak ez da bere diskurtsoaren jabe (azalpen motak, enfasiak, tonuak, azpimarrak, eten kontrolatuak, adierazpen zehatz batzuk etab. galdu egiten dira).
 - batzuetan zentzu edo balio handiko adierazpen juridikoak ez dira itzultzen edo modu desegokian egiten dira.
 - kontuan izanda bat-batekotasuna, ahozkotasuna eta hurbiltasuna epaiketen funtsezko printzipio juridikoak direla, esandakoak defentsa eskubidea murrizten du.
8. Bizkaiko Abokatuen Bazkunak ofiziozko txanda eta atxilotuarentzako laguntza zerbitzua gure hizkuntzan normaltasunez gauzatzeko erabateko bermea eskaintzen du, abokatuen jarduera profesionala euskaraz bideratzeko prestakuntza eskaintzeaz gain

–Praktika Juridikorako Eskolaren bitartez, batez ere–. Hala ere, abokatuon zerbitzu horiek garrantzitsuak bezain eskasak izaten jarraituko dute, euskararen benetako erabilera Justizia Administrazioan bermatzeko tresnak abian jarri arte (hala nola, epaitegi euskaldunen zirkuitua).

LEGEAK DIOENA

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, gaur egun, euskara Justizia Administrazioan arautzen duen legediak hauxe dio:

1. Estatu espainiarreko Konstituzioaren 3.2. artikulua:

Estatu espainiarreko beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritz.

2. Gernikako Autonomia Estatutuko 6.1. eta 6.3. artikulua:

Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiak dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Hizkuntza dela eta, ez da inor gutxietsiko.

3. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.3 artikulua:

Alderdiek, euren prokuradore eta abokatuak, eta lekuko eta adituek, epaiketako jarduna zein autonomia-erkidegoren lurraldetan izan eta horretako hizkuntza ofiziala ere erabil dezakete, idatzizko nahiz ahozko adierazpenetan.

4. Euskararen Erabilpena Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 9. artikulua:

1. Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiak aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska daitekeela.

2. Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritzaren ihardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.

3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien ihardutze-sailekin elkar hartuta Euskal Herriango Epai-Ardularitzan euskeraren erabilpena arauzkotzea suzkatuko du.

Bestetik, 2001eko otsailaren 2an, estatu espainiarrak EREMU URRIKO ETA ESKUALDE HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNA berretsi zuela gogorarazi behar da. Itun horretako 9. artikulua dioenez, prozedura penal, zibil eta kontentzioso-administratiboetan Estatuak ziurtatu behar du jurisdikzio-organoen prozesua, aldeetako batek eskatuta, eskualdeko hizkuntzan garatuko dela.

Euskarari dagokionez, Itunaren betearazpena ikuskatu eta aztertzen duen Adituen Batzordeak estatu espainiarrari iradokizunak egin dizkio 2005eko apirilaren 8ko txostenaren bidez; besteak beste, honako hauek esaten dira adituen txostenean:

Adituen Batzordeak Espainiako agintariei hurrengo hauek egitea biziki gomendatzen die:

- Esparru juridikoa aldatzea, argi geratu dadin Euskal Herriko agintari judizial penal, zibil eta administratiboek prozedurak euskaraz egingo dituztela, alderdi batek hala eskatuz gero.

- Akusatuari modu formalean bermatzea euskara erabiltzeko eskubidea, gaztelania menperatu arren.

- Beharrezko neurriak hartzea, hala denean, Euskal Herriko agintari judizialek prozedurak Euskal Herrian egiteko duten betebeharra alderdiei jakinarazten zaiela bermatzeko, alderdietako batek hala eskatzen badu, Espainiak Gutunaren 1.a.i.; 1.b.i.; 1.c.i. paragrafoak direla bide hartutako konpromisoak betez.

- Euskal Herriko Justizia Administrazioan lan-hizkuntza moduan euskara erabil dezakeen pertsonalaren ehunekoa handitzeko beharrezko neurriak hartzea, maila guztietan, eta zehatz esanda, epaile eta fiskalen artean, eta

- Euskal Herriko Justizia Administrazioko pertsonalari eta abokatu bideratutako trebakuntza-programa egokiak ezartzea.

ZEIN DA IRTENBIDEA?

Igaro den denbora kontuan hartuta, ordua da EUSKAL ZIRKUITUAK (epaitegi elebidunak) antolatzeko jurisdikzio-organo guztietan (zigor arloan, arlo zibilean, administrazioarekiko arloan eta gizarte arloan). Arlo bakoitzean, euskara hutsean prozedura eta epaiketak burutzeko langile euskaldunak izango dituen epaitegi elebidun bat, gutxienez, abian jarri behar da: epaitegi horretan, epaileek, idazkariak, ofizialek eta fiskalek, besteak beste, autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ezagutu eta menperatuko dituzte.

ZER DELA ETA?

1. Administrazio Publikoaren aurrean posible baita, legearen arabera, **prozedura osoa euskaraz garatzea**, hala nahi izanez gero.
2. Idatzizko prozeduretan ez baita inolako oztoporik egon behar izapide guztiak euskaraz egiteko.
3. Itzulpen lanek ez dietelako inolako traba edo gatazkarik sortu behar herritar euskaldunei. **Ez dago inolako legerik euskaraz etenka hitz egiten agintzen duenik.**
4. Euskaraz esandakoak edo euskaraz aurkeztutako dokumentuek **balio osoa dutelako edozein prozesutan.**
5. Legean ez da ezarri epaile, idazkari eta fiskalek **euskara ez badakite itzultzaileak erabili behar direnik.**

ILUSTRE COLEGIO DE
ABOGADOS DEL
SEÑORIO DE VIZCAYA



BIZKAIA JAURERRIKO
ABOKATUEN BAZKUN
OHORETSUA

Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea

nahitena da



Epaitegietan euskal zirkuitoak ezinbestekoak

ILUSTRE COLEGIO DE
ABOGADOS DEL
SEÑORIO DE VIZCAYA



BIZKAIA JAURERRIKO
ABOKATUEN BAZKUN
OHORETSUA